

# Federatu lizentzia 2025. Tramiteak

Inprimakia klubeko web orrian lor dezakezu. Jarraian datorrenaren berdina edo antzekoa izango da.



## FEDERATUAK 2025 FEDERADOS

(Bazkideak bakarrik – Solo socios)

(Atzealdean sinatzea derrigorrezkoa da - Es obligatorio firmar en la parte de atrás)

BAZKIDE ZK. – Nº SOCIO:	
IZEN DEITURAK – NOMBRE Y APELLIDOS:	
JAIOTZE DATA – FECHA NACIMIENTO:	NAN – DNI:
HELBIDEA – DIRECCIÓN:	E-MAIL:
POSTA KODEA – CÓDIGO POSTAL:	HERRIA – POBLACION:
TELEFONO FINKOA – FIJO:	TELEFONO MUGIKORRA – MÓVIL:

EUSKADIKO MENDI FEDERAZIOA FEDERACIÓN VASCA (E.M.F.)			KATEGORIAK (Jaiotze data) CATEGORIAS (años de nacimiento)	ESPAINIAKO FEDERAZIOA FEDERACIÓN ESPAÑOLA (F.E.D.M.E.)		
ESTATUA ESTADO	PIRINIOAK* PIRINEO*	MUNDUA MUNDO		ESTATUA ESTADO	PIRINIOAK* PIRINEO*	MUNDUA MUNDO
24 <input type="checkbox"/>	43 <input type="checkbox"/>	90 <input type="checkbox"/>	AISIALDIA (2012/01/01 ondoren jaiotakoak) RECREATIVA (Nacidos después del 01/01/2012)	26 <input type="checkbox"/>	45 <input type="checkbox"/>	92 <input type="checkbox"/>
24 <input type="checkbox"/>	43 <input type="checkbox"/>	90 <input type="checkbox"/>	HAURRAK (2012/01/01 - 2018/12/31) INFANTIL (01/01/2012 – 31/12/2018)	26 <input type="checkbox"/>	45 <input type="checkbox"/>	92 <input type="checkbox"/>
30 <input type="checkbox"/>	49 <input type="checkbox"/>	96 <input type="checkbox"/>	GAZTEAK (2008/01/01 - 2011/12/31) JUVENIL (01/01/2008 – 31/12/2011)	36 <input type="checkbox"/>	55 <input type="checkbox"/>	103 <input type="checkbox"/>
95 <input type="checkbox"/>	113 <input type="checkbox"/>	160 <input type="checkbox"/>	NAGUSIAK (1961/01/01 - 2007/12/31) MAYOR (01/01/1961 – 31/12/2007)	108 <input type="checkbox"/>	127 <input type="checkbox"/>	174 <input type="checkbox"/>
86 <input type="checkbox"/>	105 <input type="checkbox"/>	152 <input type="checkbox"/>	ONURADUNA (aldizkarirako helbide bera) BENEFICIARIO (mismo domicilio envío revista)	100 <input type="checkbox"/>	119 <input type="checkbox"/>	166 <input type="checkbox"/>
70 <input type="checkbox"/>	89 <input type="checkbox"/>	136 <input type="checkbox"/>	65etik GORAKOAK (1960/12/31 baino lehen jaiotakoak) MAYOR DE 65 AÑOS (antes del 31/12/1960)	84 <input type="checkbox"/>	103 <input type="checkbox"/>	150 <input type="checkbox"/>
62 <input type="checkbox"/>	81 <input type="checkbox"/>	128 <input type="checkbox"/>	65etik GORAKO ONURADUNAK BENEFICIARIO >65 AÑOS 1960/12/31 baino lehen jaiotakoak)	75 <input type="checkbox"/>	94 <input type="checkbox"/>	141 <input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	22	MENDIKO BIZIKLETA – BICICLETA DE MONTAÑA	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	22
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	39	ESKI ALPINOA – ESQUÍ ALPINO	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	39
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	61	(Eski alpinoa +) SNOW – SNOW (+ esquí alpino)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	61
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	2.063	ESPEDIZIOAK – EXPEDICIONES	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	2.063
GUZTIRA-TOTAL		€		GUZTIRATOTAL		€

Lehen emandako lizentzia berriro emateagatik (galdu egin delako, lapurtu egin dituelako, etab.) ordaindu beharrekoa: 3,50 €

Por la reposición de una nueva licencia (perdida, robada, etc.) se abonarán: 3,50 €

Luzapenak: (FEDME aseguru eta Aukerak) 3,50 € kobratuko dira - Ampliaciones: (FEDME Seguro y opciones) se cobrará 3,50 €

\*PIRINEOS aukerak: Frantses Pirineoak, Andorra, Portugal eta Marruecos barne ditu

Ikus dezakezun bezala, prezio-taula bi ageri dira:

- Euskal Mendizale Federazioari (EMF) dagokiona.
- Espainiako Mendi Federazioari (FEDME) dagokiona.

**Prezio-taula biek, ezberdinak izan arren, estaldura bera dute. Bietako bat soilik bete behar duzue.** Beraz, zer dela eta euro batzuen alde hori bata eta bestearen artean? Mendiko aterpetxeetako erabilera egitean aplikatzen den deskontuan dago gakoa.

- Aseguruia EMFren prezio-taularekin egiten badugu, federazio honek kudeatzen dituen aterpetxeetan, estatu pirneotako eta Asturiasko aterpetxeetan soilik lortuko dugu aipatutako deskontua.
- Aldiz, FEDMEren taulekin egiten badugu, beronek kudeatutako aterpetxeetan eta Espainatik kanpo aterpetxeetan ere lortuko dugu.

Aseguruaren estalduran iraupen eta zeharkaldi eskia sartzen dira. Aldiz, pistakoa (eski alpinoa) ez dago barnean, eta gehigarri bat kontratatu behar da. Hala da snowboard, mendiko bizikleta eta espedizioen kasuan ere. (Kontsultatu inprimakiaren azpiko blokea).

### **Inprimakia betetzeko oharrak:**

1. Soilik klubean alta emanda dauden bazkideak federatuko dira.
2. Inprimakia ordenagailuz betetzea eskatzen da. Horrela ezin bada, letra argi eta larriz egin.
3. Bazkide zenbakia Katazka aldizkariko pegatinaren helbidean dago. Ezin baduzu lortu, ez bete, klubean arduratuko gara onespina emateaz.
4. Inprimakia ezin baduzu lortu, klubean egongo da eskuragarri.
5. Inprimakiaren atzealdean zure sinadura egon beharko da.
6. Adingabeek beste inprimaki bat bete beharko dute gurasoen/tutoreen baimenarekin. Dokumentu hau web orrian zein klubean egongo da eskuragarri.

Behin inprimakia(k) beteta, berau entregatu eta ordainketa egiteko 4 era egongo dira 4 mahai/lerro ezberdinetan:

1. Ordainketa ES27 3035 0014 6901 4113 4732 kontu zenbakian egin dezakezu. Inprimakia eta egiaztatzea (izen-abizenekin) dagokion lerroan entregatu beharko dituzu.
2. Ordainketa kreditu txartelarekin egin dezakezu, inprimakia entregatzearekin batera, dagokion lerroan.
3. Ordainketa esku dirutan egin dezakezu, inprimakia entregatzearekin batera, dagokion lerroan. Kopuru justua ekarri. Ez da kanbiorik itzuliko.
4. Adingabeak federatu nahi dituztenak lehen mahaian egingo dute.

Ordaindu beharreko kopurua hainbat federaturen batuketa izan daiteke, bakoitzari dagokion inprimakia ekarri.

Asteartean azaroak 26, hasiko gara federatzen.

Kontutan euki 20:00 arte soilik egongo gara zabalik.